





Landarea

Plantae erreinuko izaki bizidunak dira. Gaur egun 300.000 espezie baino gehiago kontabilizatzen dira. Landareen artean zuhaitzak, belarrak eta zuhaixkak daude. Aristotelesek eginiko sailkapen sisteman landareak animaliak ez ziren izaki bizidun guztiak ziren, hau da, mugimendurik ez zutenak edo organo sentsozialik ez zutenak. Linnaeusen nomenklatura sisteman vegetabilia erreinua osatzen zuten, geroago plantae gisa ezagutuko zena. Orokorrean landaretzat hartu ohi diren hainbat izaki bizidun azkeneko urteetan bertatik atera ditugu, adibidez onddoak eta hainbat alga talde. Gainera landareak taxonomiaren kontzeptuetatik at geratu ohi dira askotan eta horregatik zailak izaten dira definitzen eta sailkatzen.


(Wikipedia)

Land Area


An area of ground used for some particular purpose (such as building or farming).

(The Free Dictionary)





Ezagutza humanistiko eta zientifikoaren arteko bereizketa eta banaketa, inoiz baino zaharkituagoa dagoenaren ideia abiapuntutzat hartuta, *LandArea* proiektua hainbat parametro osagarri dituzten adibide eta esperientzien bila dabil. Ekosistema ezberdinei egokituriko dinamika tekniko eta kulturalen bila, jendartearen esku egon eta parte hartu nahi duenarentzat irekiak direnak; beraz, enpresa multinazional edo korporazio handietatik at dauden esperientziak.



Teknologia terminoak jada ez dio gizarteak bere biziraupena bermatzeko moduari erreferentziarik egiten, askotan jendearen premia errealetatik urrunduta dagoen jakintza zientifiko autonomo bati egiten baitio erreferentzia. Baina, txoko guztietan DIY bezalako filosofiak (Do It Yourself), hacker etika, briko-laje teknologikoa, etxeko errobotika, etab. bezalako elementuak berragertzen ari dira, ezagutzaren espiritua interes anitzak dituzten komunitateetara gerturatuz, teknologia baxutik gertu eta “eginaz ikasten” espirituari jarraiki. Prozesu horien esperimentazio-balioak eta natura, artifizio eta komunitatearen arteko elkarriketa eta hibridazio horiek bilatu eta sustatzeko nahiak onura kapitalistaren

logikatik urruntzen ditu.

Praktika horietako batzuen esperientziak jasoaz, *LandArea* proiektuaren asmoa, askotan “profesionalen” esku utzi ohi ditugun gaietara esperimentazio eta sormenaren bidez inguratzea da. Xede hori buruan, proiektuak fenomeno jakin bat du ardatz esperientzia espezifiko bat sortzeko asmotan: prozesu teknologiko eta kolaboratzaileetara lotutako hiriko baratzeak. Ortuak, elementu komunetarako espazio gisa, ezagutza analogikoa, manuala eta digitalaren arteko uztardurari esker, jendartearentzat elkargune bihurtzen diren nekazaritza- eta teknologia-esperimentazioko prozesu horizontalak sortzeko gai dira.

Proiektuak hainbat hitzaldi eta tailerrekin batera, erakusketa bat ere hartuko du bere baitan. Tresna horien bidez, hainbat sentsibiltate eta ikuspuntu jorratuko ditugu, gaur egun, prozesu mota horietan murgilduta dauden talde eta kolektiboen adibideekin.

LandArea prozesuan den lana, irekia eta kooperaziozkoa da.


Partiendo de la idea de que la división entre conocimiento humanístico y científico resulta hoy obsoleta, el proyecto *LandArea* busca ejemplos y experiencias que coincidan en desarrollar dinámicas técnicas y culturales adaptados a ecosistemas, no instrumentalizadas por las empresas multinacionales y las grandes corporaciones y que estén abiertas a todos aquellos que quieran ponerlas en marcha.

El término “tecnología” ha dejado de significar la forma en que una sociedad determinada se asegura su subsistencia, para referirse a un saber científico autónomo alejado a menudo de las necesidades reales de la gente. En cualquier caso, no puede afirmarse que la filosofía del DIY o la ética hacker hayan desaparecido. Cercanas a la baja tecnología y con un espíritu de “aprender haciendo”, formas como el bricolaje tecnológico o la robótica doméstica acercan el espíritu de conocimiento a comunidades de intereses de lo más diverso. El valor de la experimentación y el deseo por encontrar y propiciar unos diálogos e hibridaciones entre naturaleza, artificio y comunidad alejan estos procesos de la lógica del beneficio capitalista.

Recogiendo las experiencias de algunas de estas prácticas, el proyecto *LandArea* busca un acercamiento experimental y creativo a temas que a menudo tendemos a dejar en manos de “profesionales”. Con el fin de producir un conocimiento situado y una práctica específica, el proyecto se centra en un fenómeno concreto: las huertas urbanas vinculadas a procesos tecnológicos colaborativos. Estos espacios para la experiencia de lo común, donde lo analógico, lo manual y lo digital se cruzan, son capaces de generar procesos horizontales de experimentación agrícola, tecnológica y sirven de punto de encuentro para la gente.


El proyecto, compuesto de conferencias, talleres y una exposición, tratará estos temas desde diversas sensibilidades y puntos de vista, con ejemplos de grupos y colectivos actualmente involucrados en este tipo de procesos.


LandArea es un trabajo en proceso, abierto y cooperativo.



ECOLAB

100% WIRELESS
PRESSURE, TEMPERATURE





Hitzaldiak

2011/11/18
19.00etan

“EcoLab eta Re-Farm the City egitasmoen aurkezpena”

LABoral-eko ecoLAB-a eta RE-Farm The City bi ekosistema dira. Elektronika irekierren, artearen eta ekologiaren bidegurutzean kokatuak dauden ikerketarako eta esperimentaziorako elkarguneak. Parte-hartzaile desberdinen arteko trukaketatik sortzen diren jakinduria nodoak direla esango genuke, formaziorako, ikerketarako eta produktziorako guneak sortzen dituztenak.

Hizlariak: Lorena Lozano eta Hernani Dias.

Lekua: Cristina Enea.

2012/01/12
19.00etan

Zientzia eta Bizitzaren arteko jarduera sozial eta artistiko berriak.

Arte mundua aldaketa egoera batean dago. Testuinguru jakin batean kokatzearen garrantziaz gero eta jabetuago, eta honek eskatzen dituen aldaketa metodologikoetan murgilduta dago, natura eta komunitatera gerturatze bidean.

Asko dira, ekologia, ekintza soziala eta arte digital eta elektronikoaren arteko arrakaletan lanean hasi diren artistak. Paradigma berri honen ezaugarriak, proiektu eta espazioen zabaltasuna eta partehartzeko aukera dira.

Hizlariak: Maria PTQK eta Monica Bello Bugállo.

Lekua: Koldo Mitxelena.

18/11/2011
19.00 h.

“Presentación de los proyectos EcoLab y Re-Farm the City”

El ecoLAB de LABoral y RE-Farm The City son dos ecosistemas, puntos de encuentro para la investigación, espacios de experimentación en la intersección de la electrónica abierta, el arte y la ecología que funcionan como un nodo de conocimientos nacido de los intercambios entre los diferentes participantes, generando áreas de formación, investigación y producción.

Ponentes: Lorena Lozano y Hernani Dias.

Espacio: Cristina Enea.

Conferencias

12/01/2012
19.00 h.

Nuevas prácticas sociales y artísticas entre Ciencia y Vida

Una ola de cambio recorre el mundo del arte, cada vez más consciente de su inserción en un determinado contexto y la consiguiente necesidad de cambios metodológicos, el acercamiento a las comunidades y a la naturaleza.

Numerosos artistas han empezado a moverse en los intersticios que se forman entre la ecología, la acción social y el arte digital y electrónico. Este nuevo paradigma conforma proyectos y espacios que tienen como características un alto grado de apertura y participación.

Ponentes: Maria PTQK y Monica Bello Bugallo.

Espacio: Koldo Mitxelena.

Cristina Enea
Azaroak 16-17-18

17.00-20.00

izena emateko 943 45 35 26
crisrinaenea@donostia.org

Tailerrak



Baratza digital baten eraikuntza

Hiriko nekazariei zuzendutako hardware eta software tresna ireki sorta da refarmthecity tailerra. Tailerretik gertu aurki daitezken materialen kalitate, jatorri eta ezaugarrien arabera elkarrekin eraikiko ditugu hiriko barutzen estrukturak jarduera honetan.

Hiriko mugikortasun erraz bat lortu aldera, gurpildun baratzak eraikiko ditugu.

Estrukturen ondoren, elektronikaren zatiari ekingo diogu, soldatuz, eta plaka eta sentso-reak eraikiz.

Amaitzeko, ureztatzeko sistema eraikiko dugu, baita txorimalo bat eta baratza kodez eta haziz kargatu ere.

Egitaraua

- Aurkezpena
- Ideiak eta beharrak, materialak eta

kutsatzaileak

- Materialak bilatu
- Konposta eta hiriko nekazal-estrukturak garatu
- “refarm mini oporretan v1” plaka eraiki
- Ureztatzeko-sistema eraiki
- Txorimalo bat eraiki

Tailerrak 3 zati izango ditu (3 egun)

1. eguna

Refarm kolektiboaren aurkezpen bat egingo da haseran, bere osatzen duten atal guztiak aipatuz: hiriaren iraunkortasuna, bertako materialeak eta tokian-tokiko bioaniztasuna, hardwarea, softwarea, konputazio fisikoa eta nekazal teknika ezberdinak eta ondoren auzotik materialak topatzera joango gara baratzak eraikitzeko.

2. eguna

Ur bonbak eta hezetasun, tenperatura eta argi sentsoareak kontrolatuko dituen plakaren

eraiketa.

3. eguna

Ureztatzeko sistemaren egituraketa eta debugging-a.

Arteleku
Urriak
27-28

LandArea proiektuaren izaera zabalak data hauetan gertatuko den beste hainbat ekimenekin bat egiten du. Hain zuen Artelekun urriaren 27 eta 28an izango den Tresnak:: Tolls (02) lantegiarekin. Lantegi hau David Pello eta Tuni Paneak emango dute. Informazio gehiago:

www.arteleku.net



Talleres

Cristina Enea

16-17-18 Noviembre

17.00-20.00

*Inscripciones: 943 45 35 26 o
cristinaenea@donostia.org*

Construcción de un huerto digital

El taller *refarmthecity* consiste en un conjunto de herramientas de hardware y software abierto para los agricultores urbanos. En este taller vamos a construir juntos las estructuras para las huertas urbanas dependiendo de la calidad, origen y características de los materiales que se encuentran cerca de la

ubicación del taller.

Vamos a construir huertas con ruedas para una fácil movilidad urbana.

Después de las estructuras empezaremos la parte electrónica soldando, construyendo la placa y los sensores.

Finalmente, la construcción del sistema de riego, un espantapájaros, cargar la huerta de código y semillas.

Programa

- Presentación
- Ideas y necesidades, materiales y contaminantes
- Búsqueda de materiales
- Desarrollo de compostaje y estructuras agrarias urbanas
- Construir placa “refarm en mini vacaciones v1”
- Construir sistemas de riego
- Construir un espantapájaros

El taller se divide en 3 partes (3 días)

Día 1

Hay una presentación inicial de *refarm* y una breve reseña de todas las áreas *refarm*: la sostenibilidad de la ciudad, los materiales y la biodiversidad locales, hardware, software, computación física y las distintas técnicas agrícolas. Después vamos a buscar los mate-

riales en el barrio y construir huertas.

Día 2

Construcción de la placa electrónica que controlará las bombas de agua y los sensores de humedad, temperatura y luz.

Día 3

Construcción del sistema de riego y debugging.

Arteleku

27-28

Octubre



La amplitud del proyecto *LandArea* permite la conexión con otras iniciativas que van a tener lugar durante estas fechas. Concretamente el taller *Tresnak:: Tools (02)* que tendrá lugar el 27 y el 28 de octubre en *Arteleku*. El taller será impartido por *David Pello* y *Tuni Panea*.

Más información:

www.arteleku.net

Erakusketa

Behin-behineko erakusketa honek, batetik, gaur egunean artea, ekologia eta elektronika “irekia”-ren arteko elkargunean lanean diharduten hainbat laborategiren lan eta esperientziak erakusten ditu. Horien artean EcoLab Gijoneko La Laboral-en kokaturiko esperientiza, Re-Farm The City ekimena edo Tuni Pancaren Oasi Floriakustikoak. Bestetik, Bilbo inguruko baratzeen inguruan Vicente Paredesek egindako instalazio bat egongo da ikusgai. Instalazio honi Jaime de los Riosen ekarpen ezberdinak egingo dizkio proiektuaren barnean kokatzen diren lantegi ezberdinen ondorioekin.



*Azaroaren 14tik Otsailaren 23ra
Cristina Enea*

Esta exposición temporal por un lado trata de visualizar trabajos y experiencias creadas desde diversos laboratorios que a día de hoy están experimentando en la intersección de la electrónica abierta, el arte y la ecología. Entre otros EcoLab, una experiencia situada en La Laboral de Gijón, la iniciativa Re-Farm The City o los Oasis Floriacústicos de Tuní Panca. Por otro lado se podrá visitar una instalación creada en torno a las huertas urbanas de Bilbao por Vicente Paredes. Jaime de los Ríos por su parte hará diversas aportaciones a esta instalación con los resultados obtenidos en los talleres que tendrán lugar durante el proyecto.

Exposición

Del 14 de Noviembre al 23 de Febrero
Cristina Enea

Baratze Digitala

Artelekuko baratzea zentzoko erabiltzaile eta bizilagun desberdinek elkarrekin lan egin eta elkartzeko gunea izan da urte luzetan. Datorren urteari begira, baratzea ikerketa artistikora hedatzea nahi dugu ere, eta horrek jarduera esperimentalak garatzeko abiapuntu gisa balioko du. Natura, artea eta teknologiaren arteko lurralde hibridoak aztertuko dituzten proposamenak

eta proiektuak lantzeko, abiapuntua eta plataforma izango dira parametro biologiko desberdinen monitorizazioa, ureztatzeko automatismo desberdinak ezartzea (baratze digitala) eta horiek webgunearen bidez ikustea.

Huerto Digital

El huerto de Arteleku ha sido durante años un espacio de trabajo en común y punto de encuentro entre los diferentes usuarios y habitantes del centro. Para el año que viene, queremos que el huerto tenga además una dimensión de investigación artística que sirva como elemento de partida para el desarrollo de prácticas experimentales. La monitorización de los diferentes parámetros biológicos, el establecimiento de automatismos digitales de riego (huerto digital) y la visualización de los mismos a través de la web serán el elemento de partida y plataforma para propuestas y proyectos que exploren los territorios híbridos entre naturaleza, arte y tecnología.









Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea
Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

Mandasko Dukea pasealekua, 66
20012 Donostia
T: 943 45 35 26 - Fax: 943 47 14 14

Ordutegia / Horario
Astelehenetik larunbatera / De lunes a sábado:
9.30-13.30 15.00-19.00

Igande eta jaiegunetan / Domingos y festivos:
10.00-13.30

www.cristinaenea.org
cristinaenea@donostia.org



Patronoak / Patronos



cristinaenea
fundazioa

Donostia Ingurumen Baliabideen Etxea
Centro de Recursos Medio Ambientales de San Sebastián



Diputación Foral de Álava
Diputación Foral de Guipúzcoa



Ayuntamiento de San Sebastián



Laguntzaileak / Colaboran

arteleku

